

ZER
ALDIZKARIA

433. zenbakia
2017 URTARRILLA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Zorion eta
urte barri on



Esteban Urkiaga
"Lauaxeta"



Gorbeia inguruko
etno-ipuak ta esaundak III



Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



ESTEBAN URKIAGA “LAUAXETA”

Zenón Uriguen, *Pasiotarra*

Esteban-Lauaxetaren Familia

Bere gurasoak Jose Mari Urkiaga eta Ana Bizenta Basaraz ziren, eta 1905 urtean, abustuak 3, Laukiz, Bizkaian, jaio zan Erriko Taberna etxean, irugarren egunean bataiatua izanik. Euskal gizartearen ondasunik goragarriena beti izan da familia. Ori ezagutu dogu orainarte eta oso egokiro esaten da. “Familia zelakoa, gizartea alakoa”. Zenbat seme alaba izan zituen? Ez dago datu ziurrik baña, ezagunen artean zazpi seme alaba zirala, aoz-ao dakigu.

Gurasoen lenengo eginbearra seme alaben aziera da. Ume bakoitxak barne muiñetan daroa gaitasun berezia, joera eta moduak. Gurasoek eten bako alegiñak egin bear dabez seme alabai nortasun berezia emoten, euren buruaren jaun ta jabe izan daitezcan. Gurasoek gauza ederrik asko egin arren, bear bada, gauzarik oberena egin barrik izten dabe: gizonginza, gizonaren eziketa. Egia da Barandiaran jaunaren esaera: “Euskal leen gaia, izakia da” beste ekimen guztien ganetik. “Asko daki zaarrak, erakutsi bearrak”

Seme alabak ugarituz, Jose Mari eta Bizentak erabaki dabe 1909 urtean, Mungiaara aldatzea, batez be, seme alaben bizigiro barria egokitu, “bide barriak” egin eta bizitzeko. Mungia-ko etxea lau aizetara zabaldurik dago. Emen sortzen da Esteban gazte argiaren goi etorri aldia eta “Lauaxeta” izena bereganatzen dau. Gaur egun, Mungia barrian, Lauaxeta kalean, daukazu olerkari onen izenagaz Hotel bat.

Lauaxetaren gaztaro goragarria.


Aizeak ez dau mugarririk, eta Lauaxeta gazteak ez dauko geldi egoterik. Mundu zabalera osoa berea dala dirudi. Amaika urtekin zer egin? Durangoko Jesuiten ikastetxean ekin eta ekin diardu jakingura bizi azaldu eta gizartearen egirik ederrenak, ikasten. Bere burua eta barnea ez da ikasteaz bakarrik asetuko. Eta Jesuita izateko asmo bizigarria dau. Esan ta izan. 1921an, amasei urtekin, Loiolara doa Nobizi-aldia bizitzera. Bizibide onetan ezagutzen dau Jokin Zaitegi, euskal gizon jakintsua ta jatorra. Bere babespean euskeraren eta aberriaren zaletasuna, su-garra lez, biztuten da bere barnean. Eta Loiolan Zaitegiaz batera, garai aretako Euskal ospatsuekin bat egiten dau, Andima Ibinagabeitia, eta aita Mujikagaz. Idazlari klasikoak irakurten ditu, eta Jesusen Biotzaren Deian azalduko dauz bere idazlanak, onartuak izango diranak. 21 urtekin, nun ikusten dogu? Oña ikastetxe nagusian ikasketak osatzeko asmoagaz, baña 1928an alde batera utziko ditu eta "Bide Barriak" artu.

Lauaxeta, idazlari gorena.

1931 urtean Lauaxetak argiraratzen dau bere lenengo liburua, "Bide Barriak". Liburu onek Aitzol jaunak, euskal literaturaren eragille jatorrak egindako

itzaurrea dakar. Bide Barriak, eragin aundia izan eban euskalzale guztien artean, eta nik, gogo onez ta, bein eta barriz, irakurten nebazan bere poema arrigarriak. 1935 urtean argitaratu eban bigarren liburua. "Arrats Beran" irakurle geienak ikusten gendun gure Euskeraren aurkespen barri eta berezia. Lauaxeta olerkariaren entzute ona gora ta gora doa, eta Euskadi aldizkariaren arduradunak eskatzen dautse leen orrialdean, egiteko bere idazlanak eta poemak. Ordurate Nikolas Ormaetxea (Orixe), izan zan orrialde orren idazlaria. Aurrerantzean, buru-belarri, jokatuko dau Euskaldunak, poema ederrak, idatzi eta argitaratzeko.





Lauaxetaren baikortasuna

Lauaxetaren buruak ez dauko mugarik edozein erriaren kulturak eta oiturak onartzeko. Arrigarria da Lauaxetak Leon XIII aita santuaren Rerum Novarum Enziklika irakurri eta ausnartzea. Benetan bertan eskatzen diran gizartearen arazoak onbideratzeko kristau bide argiak: jaun-jauntxoen eta langilleen arteko desberdintasunak zuzentzeko, legezko giza-eskubideak betetzeko deiarra, alderdi eta talde guztien eskubideak zintzoki ta biotz zabaltasunez artzeko. Kristau fedea, bakea, maitasuna, eta pertsona guztien bardintasuna, gizarte barraren oñarriak izan bear dira bakean bizitzeko.

Jakingarria da, bai, Lauaxetak parte artu ebala Eusko Emakume Batza sendotzeko, 30.000 bazkidetik gora izanik. Goragarri da 1931 urtetik aurrera auteskundetako emakumeak botoa emoteko eskubidea lortu zala, zorionez. Bere oiuz bizia izango da: "Danok daukaguz eskubide bardiñak izkuntza, erlijioa eta oiturak bizitzeko".

Lauaxetaren gaitasunak.

Arritzekoa da bere izakera beti ekin-tzaillea, jeltzalle bizkorra ta gidaria, aber-tzale zintzoa, olerkari benetan berezia, idazlari oparotsua, euskaltzale bikaña, Kristau bete-betea bere bizia emon arte, bere burubide eta asmoen jaun ta jabea. Eusko izkuntzari indar barri ta barritzallea ezarritakoa, gaztediaren eredu bikaña, eta Euskal erriaren jarraibide argi ta zuzena.


Lauaxeta: Betiko Oroimena

Pasiotarrak Euba-Amorebieta-Bizkaian geure biziera egiteko gaztientzat ikastetxe aundi bat izan dogu. Gaur egun ikastetxea Lauaxetaren betiko oroimenez LAUAXETA IKASTOLA izatea erabaki dogu. Zergaitik? Lauaxeta euskal-zale, euskal idazlari, Kristau zintzoa, eta bere bizieran gaztediarentzat eredu jatorra dalako. Zorionez Lauaxeta Ikastola ospetsua da eta Euskal erri askotik datoz bertan geure kultura, geure kristau fedea eta geure euskera gorengo maillan jartzeko. Oroimen bizigarria!.

Jarraituko dau



**GORBEIA
INGURUKO
ETNO-IPUIN
ETA ESAUNDAK II
EUSKALTZAINDIA
& DEUSTUKO
UNIBERTSITATEA**



Gorbeialdean gaur egunerarte egin den etno-linguistika iker-lanik luze, zabal, sakon eta zeatzena.

Egilea eta kurrikulum laburtua

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Euskal Filologian Doktoa.

D. Jose Miguel Barandiaranen Etnografiako "Bizkaiko Etniker" taldekidea.

Euskaltzaindiakoa

Deustuko Unibertsitateko irakasle emerittoa eta ikertzailea Euskal Filologian

BI-ko katedratiko oia Euskal izkuntza eta Literaturan.

Idazlea.

Barriemoileen erriak, zenbakia eta kontaketa kopurua

Zeberio + Orozko + Zeanuri + Dima + Lemoa + Bedia + Igorre + Arantzazu + Artea + Areatza + Otxandio + Ubide + Arakaldo + Arrankudiaga + Galdakao + Ugao + Zaratamo + Zollo + Baranbio + Laudio + Arrigorriaga (Buiagoiti) + San Miguel de Basauri + Bilbo (Malmasin Ertzean).

ERRIAK GUZTIRA	23
BARRIEMOILEAK GUZTIRA	102
MITO ETA ESAUNDEN ZENBAKIA:	
GUZTIRA	450
ZEBERIOKOAK:	164
ETNO-KONTAKETA	
GAINETIKOAK	286
ETNO-KONTAKETA	



LIBURUAREN ATALAK

*Itzaurrea

*Sarrera

- 1-. Etno-ipuina eta esaundak bertsiotzat (guztira 450)
- 2-. Iztegia eta esapideak
- 3-. Aurkibide tematiko zenbakitua
- 4-. Barriemoileak
- 5-. Bibliografia

*ERANSKINAK:

- 1-. Ento-ipuina eta esaunda guztien gaztelarazko laburpena
- 2-. Zeberioako euskeraren azterketa

LIBURUAREN ATALKAKO NONDIK NORAKOA

*SARRERA:

Bilketa lan etnografiko luze, sakon, zabal eta zeatz onek sarrera argigarri bat bear daukela dakust, beti be, irakurle zein ikerlearen lagungarri legez **etno-linguistika** bidean.

Istoria apur bat eginaz, bilketa lan au 1975ean asitakoa da. Urte orretan sartu ninduen Ander Manterolak On Jose Miguel Barandiaranen Etniker-Bizkaia taldean. Bileretako batean Gorbeialdean entzundako mito batzuk kontatu neutsazan Barandiarani eta euren balioa adierazi ondoren bilketa asteko aolkua emon eustan eta orduraxean asi nintzen Gorbeialdeako mito



eta esaundak biltzen Zeberio neure erririk ara asita, Gorbeialdean jarraitzeko.

Orain aurkezten dodan liburu onek beste bat dauka aurretik, “*Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*” (Labayru Ikastegia & BBK. Bilbo, 1995) eta oraingo au, “Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II” (Euskaltzaindia & Deustuko Unibertsitatea), jarraipena litzake baina askoz luzeagoa eta zabalagoa. Zerean, 1995ean argitaratutako liburuan Gorbeia inguruko 10 erritako 50 barriemoile erabili nebazan, ia 200 etno-kontaktako bilduma osaturik.

Erriak, oraingoan, Gorbeia inguruko 23 erri arakatu dodaz eta 102 barriemoile erabili, guztira 450 etno-kontakteta bilduz. Gorbeia inguruan aztertutako erriak onexek dira: Zeberio, Ubide, Otxandio, Zeanuri, Areatza (Villaro), Artea, (Castillo-Elejabeitia) Arantzazu, Igorre, Dima, Lemoa, Bedia, Galdakao, Ugao (Miravalles), Zaratamo, Arrankudiaga, Laudio, Arrigorriaga, Bilbo, San Migel de Basauri, Arakaldo, Orozko, Baranbio, Zollo (gaur egun, Baranbio eta Zollo, urrenez urren Amurriok eta Arrankudiagak eurenganatu badabez be, oraintsurate erri autonomoak izan dira eta alaxe adierazten da lan onetan, esaterako, Zolloko euskera eta Arrankudiagakoa ez diralako bardinak, gaur egun erri bakarra izan arren).

1-. Etno-ipuin eta esaundak bertsio bietan (guztira 450)

Aurkibideko zerrendan, zenbaki bi agertuko dira. Leenengo barriemoilearena eta jarraian, bere etno-kontakteten kopuruarena.

Etno-Ipuin eta Esaunden korpus erraldoi au zutabe bitan aurkezten da. Ezkerrean, Etnotestu zeatza eta eskuman, bere Bertsio Etimologikoa obeto ulertzeko Gorbeialdean zein Euskalerrri osoan. Zeaztasun onek, balio bi-koitza zaintzen dau. Batetik Etnografikoa eta bestetik Linguistikoa.

Transkribapenetan, zeaztasunera jo dot beti, etorkizunari eredu fidagarri bat emoteko, izan be, etnotestuen transkripzio oker guztiek

ondorio okerretara eroateko arriskua daukie-lako. Transkribapenetan, barriemoilearen berbak bakarrik agertzen dira eta batzuetan jostekile edo jostun-lana egin bear izan dot, zatika edo eta saltoka kontatutakoa josteko, baina beti be, erri-kontalariaren berbaikunea errespetatuz eta fonetismoak zeatz transkribatuz. Nire galderak ez dodaz transkribatu, baina erantzunak ikusita, argi dago aurrean nagoala.

Nire galdeketaren alorrari begira, oinarrian, On Jose Miguel Barandiaranen “*Guía para una encuesta etnográfica*” dago, baina On Jose Miguel Barandiaran berberaren aolkuari jarraituz, mito, esauda, ipuin eta bizikera zaarretara mugatu naz batez be, barriemoileen adinak ez daualako parkatzen. Erri-euskera jasotze au urgentzia andikoa da, bestela, “*verba volant...*” eta egin bear duguna da ...”scripta manent”, berandu izan baino leen.

Gai tematika dala-eta, etno-kontakteten zerrreda edo eta geroago datorren aurkibide tematikoa ikustea baino ez dago, alkarrizketetan zer gai erabili dodan jakiteko. (Mari Anbotokoa - Jentilak - Gizotsoa - Aduak - Laminak - Sorginak - Linderoak - Deabrua - Landareak - Arimak - Baragarriak - Animaliak - Erlijiosoak -

San Juanetakoak - Pasadizuak - Sexu-kutsukoak - Lapurrenak - Usadioak - Bidazti - ekintzak - Kantak - Ipuinak - Istoriak - Ume-kontuak - Pertsonaiak - Urregorria - Denbora - Gauargi). Era onetara, Enografia bilketa egin dot eta euskeraz danez, izkuntza jasoketa be bai. Biak ezkonduz: **Etno-Linguistika**. ortxe dago euskaldunon nortasuna, orrexek egin, egiten eta egingo gaitu euskaldun, nondik gatozenetik goazenerako bidean.

Emoitzak onek lortzeko be On Jose Miguel Barandiaranen aolkuak izan dodaz bitarteko. Au da, barriemoilea ondo aukeratu bear da, konfiantza-giro ona sortu eta galderak egiten jakin ebokazio-bidea erabiliz.

Zientzia-lanak serioa izan bear dau beti eta zeatzak. Zeaztasun onek, jakina, zailtasunak dakartz irakurtzerakoan eta orrexegatik eskeintzen da bertsio bitan. Alde batetik etnotestua, bertsio fonologikoan, aal danik eta zeaztuenean eta bestetik bertsio etimologikoan. (Bertsio etimologikoa, jakina, euskera biziaren etnotestua obeto ulertze-bidean ulertu bear da beste barik, gaur egungo arauak baino leenagora joaz. Esaterako “*ollo, tella, allegatu, engañatu, gaztaña...*”).





2-. Iztegia eta esapideak

Bertsio Etimologikoaz gain, etnotestuetatik ateratako esapide edo lokuzio eta guztizko iztegi luze bat eskeintzen da, etnotestuak irakurri aala obeto ulertzeko.

Aurreko liburuan zein onetan erabilitako metodologia, antzerakoa bada be, oraingoan zeaztu egin dot, iztegiaren sarreretan zein barruan. Aurreko liburuan etnotestu edo eta bertsio etimologikorik arako sarrera emon neutsan iztegiari, h-ren kasuan adibidez, baina oraingoan aal danik eta arautuena dagger, gaurko iztegi arautuetan errazago aurkitzeko kasuan kasuko itza. Izan be, etnotestu oneek, Bizkaia barruan, Gorbeia inguruko euskera-renak dira eta bertokoa ez danarentzat sano gatx egiten da etnotesturik arako itzok ulertzea. Metodologia one-gaz Euskalerrri osoak goza leike Gorbeia inguruko euskera ederra. Beraz, ez da iz-

tegi arautua, argi-bide edo uler-bideko iztegi lagungarria baino, orregatik, besteak beste, berba batzuk era bitara agertzen dira artikulua bitarteko. Sarrera-itzetan artikulua beren beregi jarri da, tokian tokiko etnotestuetan bere inflexio fonetiko-fonologikoak ikusteko. Iztegi onetako itz guztiak, jasotako etnotestuetakoak dira eta azalpenak be orkoxeak. Itz batzuk ezagunagoak izango dira, beste batzuk ezezagunagoak edo eta



zaarkituak, eta beste batzuk inoiz jaso bakoak. Azkenengook aberastu egingo dabe etorkizuneko euskal iztegia. Or dagoz jasota, artu, onartu eta erabiltzea neke etorkizuneko euskeraren aberasbidetan!

3-. Aurkibide tematiko zenbakitua

Aurkibide tematikoaren elburua auxe da: zenbakiari jarraituz gaia aurkitzea. Esaterako, Mari Anbotokoaren aipamena zenbaki oneitan egiten da: (MARI: 7.2 + 19.19 + 19.20 + 46.6 + 73.1 + 74.1 + 75.1 + 76.1 + 77.1 + 78.5 + 79.1 + 79.2 + 79.6 + 80.4 + 82.1 + 83.1 + 88.1 + 89.2 + 95.1 + 104.2 + 108.3 + 109.1 + 110.1 + 110.6 + 115.1 + 122.1). Eta orrela beste gai guztietan. Zelako aberastasuna!

4-. Barriemoileak

Asteko, barrimoileak ondo aukeratu bear dira eta euren fitxa ondo zeaztu: adin eta grabaketa datak ondo jarri. Nongoa dan, non bizi dan, nora aldatu dan (ezkontza, lana edo beste zeozergatik). Esaterako 25. barriemoilea, Zeanuriko Ipiñaburukoa zan jaiotzez, gero gaztaroan Orozkon egondakoa, gero Artea-Arratiako Seminarioan lanean eta azkenik Zeburioko Undurragara ezkondu eta an bizi il arte. Fitxako datu oneek lagungarri dira barriemoile onen euskeraren eraginak aztertzeke, batez be, dialektologia aldetik.

Barriemoile bakoitzak bere zenbakia daroa eta jarraian kontaketa bakoitzarena, au da, zenbat kontaketa arexen beste zenbaki. Oraingo liburuan, aurreko liburuko 50 barriemoileetatik 30 barriro agertzen dira baina etno-kontaketa barriekaz (leen zinta guztiak ez nebazalako guztiz transkribatu edo eta 1995eraz gero, barriemoileokaz alkarrizketa eta grabaketa geiago egin ditudalako) eta orrexegatik leengo liburuko barriemoileen etno-kontaketa barrien zenbakia aurrekoaren jarraipena da. (Esaterako aurreko liburuko leenengo barriemoilearen azken etno-kontaketa 1.14 izan zanez, oraingoan 1.15 zenbakitik jarraituko da). Barriemoile barrien kasuan, au da, 51tik gorakoen etno-kontaketak, 1-etik asiko dira. (Leenengo 50 barriemoileen zerrendan, jauziak agertuko dira zenbakietan, 20 barriemoileongandik ez dodalako etno-kontaketa barririk bildu, baina beste 30 barriemoileengandik bai, eta orrexegatik errespetatu dodaz aurreko liburuko zenbakiak.)



5- Bibliografia

Oinarri-oinarrizkoa bakarrik jarri da. Laburbilduz, On Jose Miguel Barandiaran jarraitu dot Etnografiarako eta Koldo Mitxelena Linguistikarako, biak be, zeaztasu bidean.

ERANSKINAK:

1- Etno-ipuin eta esaunda guztien gaztelerazko laburpena (Digitalean bakarrik)

Gaztelerazko laburpenak “*Consejo Superior de Investigaciones Científicas*”-eko Julio Camarena Laucirica-ren aolkuz egin dira. Alde batetik, euskera ez dakitenak be ezagutzeko altxor eder au eta bestetik, Euskal erritik kanpo be katalogatu aal izateko etno-ipuin eta esaundok

2- Zeberioko euskeraren azterketa

Dialektologia ikuspuntutik, eta etno-testuetan be ikusi daitekenez, Gorbeia inguruko errietan ez da euskera berbera egiten, eta erri baten barruan bertan ere ez. Ori olan bada be, eranskin lagungarri gisa, Zeberioko euskeraren azterketatxoa eskeintzen da, danean ez bada be, bereiztasunak bereiztasun, gauza askotan berdintsu jokatzen dalako Gorbeialdean.



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XVIII)

4. ZATIAN.

Lenengo itsasaldia.

1.492an Dagonillaren 2an Kolonek 32 urte euki zituzela, itxasontzietara igoteko agindua emon eban, eta Dagonillaren 3an eguzki aldetik egun orren argitasuna agertu egien ordu erdi bearrean egon ziranean, itxasontziak itsas-zabalera bideratuta, kariatik urtetako agindua emon eban.

1.492an Iraillaren 1ean Gran Kanariasen ugartediko Las Palmasetik urten eta Gomerako San Sebastian kaiara joan ziran.

Eta 1.492an Iraillaren 6an Gomeraren ugartearen San Sebastian kariatik urtenda, atzean itzi eben Europa zar au, itsas zabalaren barkartasunetan sartzeko.


Mallorkaren izarlaritzazko ikas-tetxetan ikasten ziran izarraren kokategietatik ibiltzen, eta ibili be ibiltzen ziran, euren artean ezagutzen ebazan itsasoetan, eskutitz edo mapa baten izarraren ezarmeneko zeru-margoztutatik, Mallorkakoak gauza orreitan sakon sartuta egon zirelako.



Eta bai Europa osoan be arduratzen ziran ikasten, baiña itsasoaren bazterretik ibiltzen ziran lez, itsaslariak ez eben eukiten itsasoko gauzatan, izarraren laguntza bear tresneri lez, arik eta Kolonen antzera, itsaso zabalaren barkartasunean sartuta, bear ebezan zeaztunak artzeko beste tresnerik euki ez, eta Kolon bera izan zan kosmografiaren tresnak leen ibili zituzenak.

1.492an Iraillaren 19an Santa Maria itsasontzi inguruan, sanga⁽¹⁾ bat agertu zan, ta jakinda txori au ez zala urrunduten 20 leko⁽²⁾ itsas-baztarretik, jakin eben lur sendo edo ugarte aundi batetik urbill egon zirala.

(1) Sanga = alcatraz (ave). (2) Leko = legua.



1.492an Urrillaren 11n aize gogorra ibiltzen zala, Pinta itsasontzikoak suagaz landutako makilla bat eta kañabera batzuk ur gainean ibiltzen zirala ikusi eben, eta baita urru-
nean sua be.

1.492ko Urrillaren 11n gabeko 2-3 ordu bitartean Kolon, Alonso ta Pinzontar Martin, Yanez ta Pinzontar Bizente eta iru itsas-ontziko mariñelaren neka eta larritasunezko otoitz eskaerak entzunak izanda, nun agertu jakiezan Amerikako Lurrak, naita eurak Indiako lurrak aurkeztu ebazala ustean egon.

Orregaitik ango biztanleai Indian egon zalakoan Kolonek, indioaren izenakin deituta, gaur be orokorrean izen orrekin ezagutzen dira ango lurraren seme-alabak.

1.492an Urrillaren 12an Bahamas edo Lukayaseko ugartedian osotzen dauan Guanahani bertoko semeak deitzen eutsoen ugartean lurreratu ziran, eta Kolonek aunditasun guztiagaz, bere Mallorkaren Felanitx'eko erriaren dagon San Salvadorreko baseliza gogoratuz, "San Salvador" izena ipini eutson, iñori adierazpenik emon babe,

errege katolikoakaz egindako itun edo alkarpidetik, ixilpekoa zalako.

San Salvador baseliza onen edesti laburra auxe da: 1.348ko urtean, udalako ziñegotziak Santueriko gaztelatarrekin batera, IVn Pedro Aragoiko erregeari eskeintza edo egin-nai au aurkeztu eutsoen, "itzi eutsiela mendiaren gainean otoi-gela bat egiten", eta erregearen baimena artu ondoren, zazpi illabete baiño ez eben bear, mendi gain orreitan lenengo baseliza euken patin edo urtegiagaz batera eraikiteko, gero aldakuntza asko euki ebazanak.

San Salvador baseliza ori, itsasotik goi-aldera 509m daukan San Salvador mendi gainean eraikita dago, eta XVn gizaldian, beren inguruko biztanleak zaletasun audi-
koak izan bear ziran baseliza orrek euken Ama Birjinagaz, Kolon berak erakusten eban lez.

Kolon jaio zan Felanitx erriko etxe-gorritik San Salvador baselizarara, 7km bakarrik dagoz.

1.492an Urrillaren 14an Kolon osterata itxasontziratu egiten da, eta Marko Polok esaten eban antzera, aberastasun aundia euki eban Zi-pangoko ugartearen billa urte eban.

1.492an Urrillaren 15ean Errugabeko Sorkunde ugartera joan ziran eta 16ko eguerdian Fernandinako ugartean egon ziran.

1.492ko Urrillaren 16ko eguerdian urtenda, Fernandina izena ipini eutson ugartera joan ziran, eta ugarte guztietan onartuak izan ziran lez, ugarte onetan Kolonek ariñautik ikusitako beste ugartetik gizon bat agertuta egoan, eta euren barriak emonda, itsasontzia guztiz

inguratuta agertu zan euren potin edo kanua txikiekin, Kolonek eroan ebazan bitxikeriaren billa, eta eurak be eukezan gauzaren truke.

Kolonek, emen erabagi eban gazteluzka antzeko bat eraikitea, bertokoen esanetan urbil egon zalako berak gura eban urregorria.

1.492an Urrillaren 19an Kolonek Samoet'eko ugartera joan ziran eta Isabelen izena ipini eutson, bere izeko Gaztelako erregiña I Isabelen omenez, bera izan zalako ugarte ederrena.

1.492an Urrilaren 24an Kolonek, gaba-erdian Isabel ugartetik urten da, Zipango ugartera joan bazan lez, Kubako ugartera joan zan, bertoko semeagandik oartu ondoren, ugarte ori urregorritan aberastasun andikoa zala.

1.492an Urrilaren 28an Kolonek, Gaztelako erregetzaren ondorengo Juana omenez, Juanaren izena ipini eutson ugarte oneri, eta aïñ ederra izan zan lez Kubanakaneko ugarte au, Kolonek Zipangora eldu zala uste eban, eta bertan aurkituko ebalan Kan aundi errege ori, Toskarellik bere itsasoko eskutizetan esaten eban lez.

Eta Kolonek erreka orrek euken kaiari, bere ustez Kan Andiak sarritan etorten zan lekua zalakoan, San Salbadorren izena ipini eutson.

1.492ko Azaroaren 2ko bari-kuan Kolonek, Kubanakan'eko ugartera eldu zanean, lurralde au aundia zalakoan, gizon bi Jereztar Rodrigo eta Torrestar Luis beste bertoko gizon bigaz, errege-ordari lez bota ebazan Kan andiagaz egon zitezen itxaropenean,

ugarte orren erdi ingururantz, sei egun barru itzultzeko agindupean.

1.492an Azaroaren 5eko gauan eldu ziran ordari biak, Kan Aundi, Uri, ta urre gorrizko aberastasunaren aipamenik gabe, bertokoagaitik onartuak izan zirela esaten, eta barri lez, ke-belar edo ke-belarraren barriak ekarrita, zelan mozkortzen ziran bertokoak orri orreik erre ta keiaren arnasa artukeran erakutsi eben, ke-belarraren orri orreri "Tabakos" deitzen eutsela esanda.

1.492an Azaroaren 12an itsasontziak konpondu ondoren Kolonek, Babeke ugartera joan zan, eta ainbat ugarte ikusita "La Mar de Nuestra Señora" Felanitx errian dagon San Salbador baselizako Ama Birjiñaren izena ipini eutson itsasoko orren inguruari, eta ango kaiari "Puerto Principe".

Kolonek emoten ebazan oinkada guztietan, beti aurkezten ebazan gauza barriak, landara, zugaitz, bestelako arraiñ edo arraiñ artean ezberdintasun asko eta zangurru edo karramarro aundiak.

1.492an Azaroaren 21ean Alonso ta Pinzontar Martinek agintzen eban Pinta itsasontzia, beste itsasontzi bien Ekialdetik aldendu zan, ugarte barrien lur zabalak, bai ta beragaz eroan eban bertako seme baten esanetan, Babeke ugar-tean urre gorri asko aurkitzeko, Kolonek leporatzen eutson lez, eta ez ziran alkartuko barriro, 1.493ko Urtarri-llaren bigarren asterarte.

1.492an Abenduaren 6an Kolonek Kubako ugar-tean egon zanean, bertokoak Boio deitzen eutsoen ugar-teagaitik esaten eutsoen, ango gizon/emakumeak txakurren aur-pegia ta begi bakarrekuak zirala, eta Kubako ugarte itzi ta Boioko ugar-terantz bideratuz Aitiko ugar-tera eldu ziran, bertan egon zan kaiari "Puerto Maria"ren izena ipiniko eutson, eta ugar-teko beste aldean ikusi eban lur-mutur ederrari "Cabo Estrella".

Ugarte au aïñ aberats ikusi eban lez "espainolaren" izena ipini eutson, eta "Puerto de la Concepción" an egon zan kai ederrari, eta egin zan gazteluari bere goi-buru aldean, gurutz aundi bat ipini.

1.492ko Abenduaren 16-17ko egunetan ugarte onein erregearen bitartez, urre gorri naiko asi ziran batzen. Baiña iñoz ez izango zan naikoa, eta sekula ez ziran asetu, guk dakigun lez.

1.492ko Abenduaren 21ean Kolonek, itsas-kai eder bat ikusi eban, eta bere mariñeltzaren 23 urtean ez ebalan

ikusita alango kai-lakorik esan eban. Esan orretatik atara leike, Kolon 1.469ko urtetik aurrera ibili zala mariñel lez.

1.492an Abenduaren 25ean martitzeneko “Gabon-Egunean”, urperatu zan “Santa Maria” itxasontzia, eta au da onen kondairak esaten dauana: Kolon ainbeste denbora lo egin barik, ontzi-gidariaren ardurak mariñel bateri itzi eutszala.

Onek be, itxasoaren ur-bera andia egon zalako, eta naita Kolonek guztiz debekatuta euki, gabeko 12etan lo egitera joateko alegiñean ibilita, itsasmutil gazte-bateri itzi eutson ontzi-gidariaren ardura, konturatu barik urbizi edo uren lasterrak itsasontzia areetarantza eroaten ebala, eta ondartu aiñ errez egin zan lez, iñor ez zan konturatu zer gertatzen jakien.

Mutilla deika asita, danak agertu ziran ia zer gertatzen zan, eta batzuk ori ikusita iges egin gura ebalako beste itxasontzietara joanda, “Niña”ko Yañez ta Pinzontar Bizentek ez eutsien izten bere itsasontzira igoten, eta Ko-

lonek ontziaren tantai aundia ebagiteko agindua emonda ta beste gauza batzuekin arduratuta egon zan bitartean, itsasontzia urperatu zan.

Kolonek eguna argitzen egon zanean, Santa Maria itsasontzira joan zan, eta batel baten, Aranatar Diego itxas-ontzidiaren ertzaiña ta Gutierrezzar Pedro erregearen goxogillea bialdu ebazan ango Guakanagari erregearengana laguntza eskatzen, eta onek beren neska ta mutillakin laster utzitu eben itsasontzia eta gauza guztiak euren etxolatan gordeta itzi.

Asko idatzi eban Kolonek errege katolikoa-
rentzat, ango aberastasun andiko zuaitz, urregorri, landarak eta jende onein gora beran.

Eta bertokoak “Boio” deitzen eutsoen ugarite onetan euren babeserako, gaztelu antzeko bat eraikitea agindu eban Kolonek, erri lez “Villa de la Navidad” izena ipinita.

Kolonek ez eban euki eragozpenik lur auek erritzeko, mariñel batzuk lenengo egunetik, eskatu eutsoelako, ia bertan geratu leikezan.



Kolonek, Santa Maria itsasontzia urperatu zanean, beartuta geratu zan ostera peninsulara itzultzen. Niña itsasontziagaz bakarrik lur geiagoren ezagutzan ibilteko, arrisku edo galbide aundia ikusten ebalako.

Kolonek, 39 mariñel artu ebazan gaztelu au zaintzeko, Aranatar Diegoren agindupean ipini ebazan izkillu ta kañoiekin ondo prestauta, Gutierrezar Pedro erregearen goxogille eta Segobiako Eskobedotar Rodrigoren laguntzarekin.

Aranatar Diego au, Kolontar Fernandoren ama, Enrikeztar Beatriz'en loba izan zan.

Kolonek, 39 gizon onen artean Torrestar Luis adieratzaillea be itzi eban, gizon aukeratu ta bideratzeko, bera Ugarte-Erdi edo peninsula onetara itzultzen zan bertean, eta ostera bertan agertzen zanerako, lur aiek ondo aztertu ondoren, urre-gorri, algodoi, ta bertako beste gauza batzuk moltzatuta euki egiezen aginduta.

Bertoko seme-alabak, ondo artu eben mariñelaren erabagia, euren ugarte ederra beste ugarteko gizonagandik babestu egiten ebalako, eurak menperatzera joaten ziranean.

1.492an Abenduaren 31ko egunean Kolonek, Niña itsasontzia, egurra, ura, janari ugari, ta biderako bear ebezanakaz ondo apaindu ten ibili zan.

1.493ko Urtarrillaren 4an Kolonek, bertako errege Guakanari-gaz egonda gero, itsasoratu zan.



1.493an Urtarrillaren 6an Kolonek, mariñel bateri agindu eutson, ontzi-tantai⁽¹⁾ aundien goiko aldera igon egiela, eta bertatik begitu lurra ia ikusten eban, eta Pinta itsasontzia izan zan urbiltzen ikusi eban.


Itsasontzi biak alkartuta bare egon zan itsas-bazter baten, Alonso ta Pinzontar Martinek Niña itsasontzira aldatu ondoren, zergaitik taldetik banandu zan bere aitakiak esanda gero, ikusi ebezanak esan eutsoezan Koloneri.

Eta Kolonek, nai bere barnean asarratuta egon arren, ez eutson Pinzoneri asarrerik egin, onartuta berak esaten eutsozanak. 9an ostera itxasoratu zan, gauza barriak aurkezteko.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epaila'ren 21'ean

(1) Ontzi-tantai = mastil mayor del navio.



IPUIN SARIKETA

IRABAZLEEN IZENAK

1. Saria: Juan Manuel ETXEBARRIA
2. Saria: Ziortza ARRIEN
3. Saria: Asier LEGARRETA
4. Saria: Palmi MERINO
5. Saria: Arene ONAINDIA

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Trakatan, trakatan
iru errege,
trakatan, trakatan,
Belenera,
Belenen jaio den
Jesus aurtxoa
trakatan, trakatan
agurtzera.

Meltxorrek, trakatan,
zaldia beltza,
Gasparrek trakatan,
zaldi gorri,
trakatan, trakatan,
Baltasar zaharrak
zaldia, trakatan,
zuri-zuri.